

**GAIA AZALDU ETA IRITZIA EMAN**

**Jarraibidea:** 20 minutu dituzu testua irakurri eta gai honen garapena prestatzeko. Ondoren, 5 minutu izango dituzu gaia ahoz azaltzeko.

# berria

Estilo liburua Bilbo 18 gradu

Izan BERRI! aguna Hasi saioa

Asteartea 2020ko ekainak 23

Gizartea Politika Ekonomia Mundua Iritzia Kultura Kirola Bizigiro Berria TB Buletinak

## Bizikletaz



**Goizalde Landabaso**



Bizikleta gauzarik desiratuena izaten da bizitzako une batean; niri gurasoek BH urdin bat oparitu zidaten. Bost urte nituen nik baino urte batzuk gehiago zituen auzoko batekin, Robertorekin, bi gurgildun bizikletan ibiltzen hasi nintzenean. Harrezkero, etengabe inguruan izan dudana elementua izan dela esan nezake, presentzian, eta batez ere, absentsian. Ez dut ondo akorduan, baina hogeita bost urte inguru izango nituen itzelezko kolpea hartu nuenean errepidean behera. Ukondoak, esku-azpiak eta belak haragi bizian gelditu zitzaizkidan, gorputza ubelduraz beterik, orkatila okertuta, eta tetanosaren aurkako txertoa ere jarri zidaten. Istripu ikusgarria, baina ezer gutxi gehiago bizi izan nuen. Bizikletan ibiltzeari utzi nion, baina elementu poetiko gisa beti gustatu izan zait.

Badirudi XVIII. mendean, ustez, alemaniar batek asmatu zuen gailua etorkizuneko garraiobide nagusia bilaka litekeela gure artean. Londresko Udalak bizikleta-mugimendua bultzatzeko dirulaguntzak bideratu ei ditu. Parisen ere ari omen dira. Hiri askotan bizikleta eta bidegorrien zabaltzeak egiten ari dira. Krisi klimatikoa gainean dugularik, askoren aburuz, hauxe izango da garraiobiderik erabiliena eta garbiena. Niri neuri iruditzen zait gure hirietako asko, oraindik, ez daudela nahikoa prestatuta bizikletan aritzeko, aisialdirako ez bada, eta hori ere, mugatua. Izan ere, bidegorrietako asko prestatzen dira goza dezazun bizikletaz, baina ez egunerokoan erabiltzeko, ez behintzat nahikoa segurtasunagaz. Oker egon ninteke, baina bizi naizen hiria ikusten dut eta badira leku batzuk bizikletan beldurgarriak egiten zaizkidanak. Kontua da bizikletak begiratzen hasi naizela. Ez dakit etorkizuneko garraiobidea izango den, ez dakit larrialdi klimatikoari aurre egiteko bere erabilera bultzatuko ote den gure hiri eta herrietan, baina agian niretzat berarekin berradiskidetzeko garaia heldu da.

*Berria*, 2020ko ekainak 16

**Gaia prestatzeko:** zein dira testuan ageri diren datu edota ideia nagusiak? Zuk zein ideia azpimarratuko zenituzke?

## **Eman gaiari buruzko iritzia:**

- Ba al duzu bizikletarekin lotutako oroitzapenik? Zein?
- Zure ustez, etorkizuneko garraiobide nagusia bihurtuko da bizikleta?
- Zer deritzozu Londresko Udalaren ekimenari? Ondo iruditzen zaizu dirulaguntzak ematea bizikleta-mugimendua bultzatzeko?
- Zure aburuz, prest al daude gure herri eta hiriak bizikletan ibiltzeko? Zergatik?

## **HIZTEGI LAGUNGARRIA:**

Ez DUT ondo AKORDUAN= Ez naiz ondo oroitzen/Ez dut ondo gogoratzen.

Bost urte inguru izango nituen ITZELEZKO kolpea hartu nuenean errepidean behera = Bost urte inguru izango nituen *ikaragarrizko* kolpea hartu nuenean errepidean behera.

Londresko Udalak bizikleta-mugimendua bultzatzeko dirulaguntzak bideratu EI ditu = Londresko Udalak bizikleta-mugimendua bultzatzeko dirulaguntzak bideratu omen ditu.

## **Idea lagungarriak:**

- Bizikletak alokatzeko zerbitzuak hobetu eta zabaldu egin beharko lirateke.
- Ez da batere erraza oinezkoen, autoen eta bizikleten espazioak kudeatzea.
- Aspaldikoak dira bidegorri gehiago egiteko aldarrikapenak, baina oraindik ere ez daude ondo lotuta.
- Beste herrialde batzuekin konparatuz gero, badugu zer ikasia.

## **Gai honi lotuta, Ikasbil atariko beste hainbat material:**

[Euskal bidegorriak, bidaiatzeko beste modu bat](#)

[Bizikleta, etorkizuneko garraiobidea ote?](#)

[Autozaleak eta txirrindulariak](#)

## **Beste erreferentzia batzuk:**

[Bizikleta publikoak](#) (Zuzeu)

[Bidegorriak. Ondo lotu gabeko kilometroak](#) (Argia)

[«Bidegorriak? duela 50 urte askoz ere bizikleta gehiago zegoen Donostian»](#) (Irutxuloko Hitza)